



## LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2024.01.08

BILERA ZENBAKIA: 3

ORDUA ETA LEKUA: 17:30tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Bihotza (gizarte langilea), Elena (Udal zinegotzia), Amparo, Mainer, Jone Iturrioz, Esti eta Erkuden.

## EGINDAKO LANAREN LABURPENA

### LANDUTAKO GAI ORDENA

#### KULTURARTEKOTASUNA

.....

#### HERRI BIZITZA

Herri Bizitzatik guk bultzatu eta egiten ditugun ekintzen laburpena eskatu digute. Erkudenen plantilla bat sartuko du, hemendi aurrera hori bete eta Herri Bizitzara bidaltzeko (plantilla atxikita amaieran).

#### ELKARTEEN ETXEA

Bizi Nahi elkarte herriko elkarten etxea bilakatzea proposatu nahi da. Horretarako lehen urratsa zinegotzi mahaian planteatzea izango da. Kontziente gara honek lanketa handia ekarriko duela, jubilatuen espazioa izatetik, erabilera jende gehiagorengara pasatzean, araudi zorrotza eskatzen bait du.

#### ETXEBIZITZA ALOKAIKUA

Herriko familiarentzat alokairua lortu dugu. Auzo-lana antolatuko dugu etxea atondu, transladoan lagundu eta beharrezko "gauzak" erosi/lortzeko.

#### ZAINTZA

.....

Estik eman duen aurkezpenaren ondoren, Mainerrek ideia bat partekatu du: HERRIKO JUBILATUEK TUTORE BAT IZAN DEZATEN BOLONDRES TALDE BAT ANTOLATU. Funtsezkoa da adineko hauen premia indibidualak ezagutzea eta modu "pertsonalizatuan" lantzea. Adineko helduen, haien familien eta osasun-profesionalen



arteko lankidetzaz funtsezkoa izan daiteke zahartze osasungarria eta egokia bermatzeko uste dugu.

Behar ezberdinak izango dituzte, eta beharren arabera bolondres taldetik TUTOAREK izandatu dira (nahi duenak eta pres dagoena). Martxoan Amparo, Bihotza eta Jone Iturrioz jubilatuekin biltzekoak dira, eta ordurako "beharren zerrenda" bat osatzea adostu dugu whatsapez. Horrela bilera egunerako badute zer proposatu.

Heldu nagusiek (80 urtetik gorakoek) izan ditzaketen beharren zerrenda osatzen hasi gara:

- **Erosketekin laguntza** (*ogia, kafea, erosketa orokorrak, familiakoentzako opariak, etab*)
- **Gidaria** (*elizara joateko, medikuarengana, etab.*)
- **Laguntza digitala** (*telefonoa erosi, instalatu, mezu elektronikoak, administrazio elektronikoa, etab.*)
- **Arlo emozional eta soziala**, 2 astez behin/hilabete kafe bat hartu, paseatu, egunkaria irakurri, telefonoz tarteka hitz egin, etab.
- **Entretanimendua eta aisialdia** (*bilngoia, memoria tailerra...*) animatu, lagundu

## ERROLDAK

Otsailean zehar ez da errolda berririk egon.

ETXEKO- LANAK / ARDURAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Jubilatuak izan ditzaketen beharrak zerrendatu	Martxoan zehar	Denok
Elkarteen etxea proposatu zinegotzi mahaiari	Apirila	Elena
Martxoko erroldak	Apirila	Bihotza

## HURRENGO BILERA

**ONGIZATE** (apirilak 8 - 17:30 udaletxean)

- Jubilatua.

Heldu nagusiek (80 urtetik gorakoek) izan ditzaketen beharren zerrenda (bururazten zaigunarekin osatzeko):

- Erosketekin laguntza (ogia, kafea, erosketa orokorrak, familiakoentzako opariak, etab)
- Gidaria (elizara joateko, medikuarengana, etab.)



- Laguntza digitala (telefonoa erosi, instalatu, mezu elektronikoak, administrazio elektronikoa, etab.)
- Arlo emozional eta soziala, 2 astez behin/hilabete kafe bat hartu, paseatu, egunkaria irakurri, telefonoz tarteka hitz egin, etab.
- Entretanimendua eta aisialdia: